



ASTEARTEA

2023/10/24
11. urtea, 1.860. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

Ruiz de Arkaute eta Modenes, azkarrenak

Oriako txirrindulari
eskolak antolatuta,
ziklo-kros lehia izan da
Iurreamendi inguruetan // 7



Galtzaundi Euskara Taldeak deituta, elkarretaratzea egin zuten larunbatean, Tolosako Paza Zaharrean. ASIER IMAZ

Euskararen alde, Bilbora joateko deia

Herritar ugari elkartu da euskararen kontrako epaien aurka egiteko; udalei herritarren hizkuntza eskubideak defendatzeko eskatu die Galtzaundik, eta herritarrei Bilboko manifestazioan parte hartzeko // 4

Gozoaren festa hartuko du larunbatean Tolosak

Tolosa Goxua azoka bereziko protagonista
pantxineta izango da; 22 postu jarriko dituzte,
eta ohiko sagar tarta lehiaketa egingo dute // 3

Ahots taldeak lehiatuko dira aurten, Abesbatza Lehiaketan

54. Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa
ospatuko da azaroaren 1etik 5era; Europako eta
Asiako 18 abesbatzak hartuko dute parte // 2



ZURE ALDAKETAN
BIDELAGUN

Donosti etorbidea 22,
16 pabilioia
TOLOSA

686 73 88 15

info@zurekincoach.com

www.zurekincoach.com



EMAN AURPEGIA!

Birziklatu, gehiago eta hobeto.



Josu Artutxa Dorronsoro

Azaroaren 1etik 5era egingo dute 2023ko Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa. Urtero bezala, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatu du, zenbait erakunderekin babesarekin. 54. edizioa izango da, eta Europa eta Asiako 18 abesbatza etorriko dira Tolosara; denora, 530 abeslari gerturatu dira. Berrikuntza batekin helduko da lehiaketa; ahots taldeak bueltan izango dira. 2019an izan ziren azken aldiz, eta aurtengo sei talde izango dira. Horiez gain, hamabi ganbera abesbatzak ere abestuko dute. Horieta-ko bat, gainera, Euskal Herrikoa izango da: 2018an sortutako gizonezkoen Suhar Korua taldea.

Aitor Imaz Tolosako Ekinbide Etxeko zuzendariak gogora ekarri du Euskal Herriko Abesbatzen Konfederazioak txosten batean argitaratutakoa: «Euskal Herriko abesbatzen egungo panorama «beltza» dela adierazi zuten, eta ondorioz, babes handia behar dugu». Testuinguru horretan helduko da aurtengo lehiaketa. «Abesbatzen munduan lan egiteaz eta maila honetako lehiaketa bat herrian izateaz harro sentitzen garela esaten dugu, baina gero errealitatea bestelakoa da», gaineratu du Imazek. Hori dela eta, Suhar Koruak lehiaketan parte hartzea garrantzitsua izango dela uste dute antolatzaileek. Abesbatza honek publikoaren saria eskuratu zuen apirilean jokaturako Mariborreko Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan (Eslovenia), eta bigarren izan zen sari nagusian.

Euskal Herria tradizioz herri kantaria izan dela adierazi du Andu Martinez de Rituerto Tolosako alkateak: «Abesbatzen kulturak pisu handia izan du, zer esanikez Tolosan. Lehiaketa hau gure herriko kulturaren ikurretako bat da, eta Tolosa kulturalki herri bizia bada, eragile askok egiten duzuen lan handiagatik da». Hori dela eta, Imazek mahai gainean jarritako arazoari aurre egin, egoera biziberritu eta bultzada bat emateko gogoaz aldatu du alkateak.

NAZIOARTEKO OIHARTZUNA

Kultura jaialdiak aurrera eramateko, Tolosako abesbatza lehiaketa bezalako proiektuei egonkortasuna eta elkarlana ematea ezinbestekoa dela azpimarratu du Andoni Iturbe Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak. «Lehiaketa oso garrantzitsua da, bai hemen, baita nazioartean ere. Mundu osoko koru onenak ikusteko Euskal Herrian dugun



Pasa den ostiralean egin zuten 54. Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren aurkezpena, Topic-en. J. ARTUTXA

Ahots taldeak bueltan, Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan

Azaroko lehen bost egunetan, 14 herrialdetako 18 taldek parte hartuko dute lehiaketaren 54. edizioan; gizonezkoen Suhar Korua izango da Euskal Herriko abesbatza bakarra

aukera bakanetakoa da». Eusko Jaurlaritzak 2023-2028 Kultura Plan Estrategikoa onartu berri duela azaldu du, eta esan du «buru belarri» dabilzala lanean «Euskal Herriko abesbatzen egoera kaskarrari buelta emateko».

Goizane Alvarez Gipuzkoako Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kiroletako diputatuak esan du lehiaketak nazioarteko izaera ematen diola Tolosari zein Gipuzkoari. «Kultura irisgarriagoa egiten laguntzen du, eta bertako nahiz kanpoko ondare musikala kontserbatzeko, aberasteko eta zabaltzeko ezinbesteko ekarpena egiten du».

Ander Aizpurua Kutxa Fundazioako zuzendariak abesbatzek funtzionatzeko egiten den esfortzuan eta lanean jarri du azpimarrak. «Tolosako lehiaketaren kasuan, kulturen arteko zubiak eraikitzen dira, elkarrengandik ikasteko eta harremanak sendotzeko». Lan horretan guztian, boluntario taldeak duen garrantzia nabarmendu du Aizpurua. «La-

gun askok ordu asko sartzen dituzte, profesionala ez den lana profesionalki egiteko, eta ondoren, beste batzuek gozatu dezaten».

Hain zuzen, 60 boluntario inguru izaten dira urtero lehiaketaren antolakuntzan eta jaialdiaren egunetan lan egiten dutenak. Aurtengo boluntarioak behar dituztela eta, abesbatza-laguntzaile izateko deialdi berezia egin dute. «Hizkuntzak praktikatuz, jende berria ezagutu, abesbatza-musikarekin gozatu eta zure herria atzerritar baten lekutik ezagutuko dute», adierazi dute antolatzaileek. Lan boluntarioa izango da, gastu guztiak ordainduta, eta interesa dutenek 943 650 414 (luzapena: 8) telefono zenbakira deitu edo xabi@citto-losa.com helbide elektronikora mezua idatzi behar dute.

Munduko kultura Tolosara ekartzeaz gain, euskarari eta euskal kulturari ere ekarpena egiten zaio lehiaketan. «Euskal errepertorioa sustatzen du, eta

euskara presente egoten da mundu osoko abeslarien ahotan», esan du Martinez de Rituertok. Dagoeneko euskarazko 400 obra baino gehiago interpretatu dira lehiaketaren edizio desberdinetan, eta aurtengo ere, euskarazko obra bat abestu beharko dute abesbatzek: Rafael Castroren *Zahar eta berri*. Obra horrez gain, euskarazko kantu gehiago entzuteko aukera izango da, besteak beste, Eva Ugalde donostiarra, aurtengo zende den Idoia Azurmendi azpeitiarra eta Jon Saenz 27 urteko musikagile gazteak sortutakoak.

SAIO BEREZIAK

Lehiaketako saio ia denak Leidorantzokian izango dira, eta saio horietarako sarrerak salgai daude oraindik, Kutxabanken webgunean edo Leidorreko leihatilan. Lehiaketako saioez kanpo, hiru kontzertu berezi izango dira aurtengo edizioan. Batetik, urriaren 28an, larunbata, Hodeiartz abesbatzaren 40. urteu-

54. ABESBATZA LEHIAKETA**Azaroak 1, asteazkena**

16:00. Abesbatza lehiaketan polifonia modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia. Polifonia eta folklorea: VMU Academic Choir Vivere Cantus (Lituania), Seongdong-Gu Women's Choir (Korea) eta Megaron Chamber Choir (Eslovenia).

19:30. Abesbatza lehiaketan polifonia eta folklore modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia. Polifonia eta folklorea: Shanghai Rainbow Chamber Singers (Txina), Muscalipa (Filipinak) eta Suhar Korua (Euskal Herria).

Azaroak 2, osteguna

19:30. Abesbatza lehiaketan polifonia eta folklore modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia. Polifonia eta folklorea: Ching-Yun Choir (Taiwan), Mäddchenchor Hannover (Alemania) eta Somnium ensemble (Finlandia).

Azaroak 3, ostirala

19:30. Abesbatza lehiaketan polifonia eta folklore modalitatean parte hartuko duten ganbera abesbatzen emanaldia. Polifonia eta folklorea: Kammerkoret Aurum (Norvegia), La Pura Fuente Choir (Japonia) eta The Academic Choir Maribor (Eslovenia).

Azaroak 4, larunbata

11:00. Abesbatza lehiaketan musika erlijiosoa parte hartuko duten ahots taldeen emanaldia, Herrikide ikastetxean. Musika erlijiosoa eta profanoa: Musicalipa (Filipinak), Barbörükörin (Islandia), Coro Giovane With Us (Italia), Male Ensemble Philippines (Filipinak), Phoenix Consort (Erresuma Batua) eta Palestra Vokalensemble (Suedia).

16:00. Abesbatza lehiaketan musika profanoan parte hartuko duten ahots taldeen emanaldia.

Azaroak 5, igandea

11:00. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren amaiera ekitaldia eta sari banaketa.

Jarraian. Abesbatzen bazkaria, Ferialekuan.

19:00. Suhar Korua abesbatzaren kontzertua, San Frantzisko elizan.

rreneko kontzertua; 20:00etan izango da, San Frantzisko elizan. Urriaren 31n, German Ormazabal piano-jotzaile tolosarrak eta Maite Arruabarrena mezzosopranoak poesia eta musika uzartuko dituzte Leidorantzokian, 19:30etik aurrera. Azkenik, urriaren 5ean, 19:00etan, San Frantzisko elizan, Suhar Koruak saio berezia egingo du.

Pantxineta protagonista hartuko dute larunbateko Tolosa Goxuan

Trianguloa izango da agertoki nagusia; 22 postu jarriko dituzte, haurrentzako tailerrak eskaini, eta urteroko sagar tarta lehiaketa izango da; pantxineta emango dute dastatzeko

Jon Miranda

Tolosa Goxua azoka bereziak urtero gozo ezberdin bat izaten du protagonista eta edizio honetan pantxineta hartu dute ardatz antolatzaileek, euskal sukaldaritzaren pastel tradizionala. Larunbatean egingo dute azoka berezia eta 22 postu egongo dira jarrita 09:00etatik 14:00etara Trianguloan. Bertan erroskillak, pastelak, txokolateak nahiz bertako bonba eta xaxu ezagunak izango dira, besteak beste.

Tolosa gozogintza munduan «erreferentea» dela nabarmendu du Aitor Agirresarobe Merkataritza, Turismo eta Azoketako zinegotziak eta herri bertako produktu jakinez gain, azpimarra egin nahi izan du Tolosan dauden gozotegietan eta bertan lan egiten duten profesionaletan. Tolosa Goxua aurkezteko ekitaldian alboan izan ditu Gozona gozotegiko Raquel Ibañez, Eceiza gozotegiko Javier Eceiza eta Rafa Gorrotxategiko Rafa eta Armintz Gorrotxategi gozogileak. «Hauek izango dira protagonista larunbateko azokan».

Ibañezek hitz egin du bertako gozogileen izenean eta azpimarratu du haiek ari direla azoka berezia antolatzen, baina jendearen parte hartzeak bihurtzen duela azoka arrakastatsu. «Guk gure ofizioa ezagutzera eman nahi dugu, jendearengana gerturatu eta hemen dauden produktuak ezagu-



Tolosako Rafa Gorrotxategi, Eceiza eta Gozona-Ibañez gozotegiko gozogileak Aitor Agirresarobe zinegotziarekin. ATARIA

tarazi. Lehengai horiek oinarri hartuta, tradizioa mantenduz, modu artisaun nola aritzen garen erakutsiko dugu Tolosa Goxuan».

Osagai gutxirekin eta elaborazio oinarritzkoenak ikasita, gozo asko egin daitezkeela nabarmendu du Gozona gozotegiko ardura-dunak, eta jendea hori ikusarazi nahi diotela esan du. Horretarako, larunbatean bertan, gozogintzarako grina hori sustatzeko, haurrentzako tailerrak antolatu dituzte. Pantxineta egiten ikasteko tailerra egingo dute 10 eta 11

urte arteko gaztetxoek Trianguloan. Bi txanda antolatu dira 10:00etan hasita eta plaza mugatuak direnez alde zuzenetik eman beharko da izena Goxua.eliker.eus helbidean. Doakoa izango da tailerra.

Aurtengo Tolosa Goxua ez da egun bakarrera mugatuko. Tolosako gozogileek tailerra eskainiko dute ostegunean hostorea egiten ikasteko. «Beste errezeta askotarako oinarria izan daiteke eta guk gozotegietan lan nola egiten dugun erakutsi nahi dugu. Ezagutza gutxi batzuk eskuratuta gero nor-

bera hasi daiteke etxean probak egiten. Jendeak ken diezaiola beldurra gozogintzari», esan du Ibañezek. Plaza mugatuak izango dira osteguneko tailer horretan eta parte hartu nahi dutenek dagoeneko eman dezakete izena Goxua.eliker.eus helbidean.

SAGAR TARTA LEHIAKETA

Elaborazio errazeko beste postretako bat da sagar tarta, eta azkeneko urteetan bezala, aurten ere Tolosa Goxua azoka bereziaren barruan antolatu dute lehiaketa. Parte hartu nahi dutenek ez dute

TOLOSA GOXUA 2023

Urriak 28, larunbata

- 09:00 – 14:00.** Tolosa Goxua azoka berezia
- 09:30 – 12:00.** XXVIII. Postre lehiaketa herrikoia: Sagar tarta lehiaketa.
- 10:00 – 12:00.** 10–11 urte arteko haurrentzat tailerra: pantxineta ikastaroa Tolosako gozogileekin. Bi txanda.
- 12:20.** Tolosa Kantari.
- 12:30.** Pantxineta dastaketa.

alde zuzenetik izena eman beharko, nahikoa izango da 09:30etik 10:30era Trianguloan postre aurkeztearekin. Erabili eta botatzeko erretilu edo ontzi batean eraman beharko da eta momentuan bertan egingo da izen ematea. Postrearekin batera errezeta aurkeztu beharko du parte hartzaileak, zeinak gutxienez 18 urte izan beharko dituen.

Behin aurkeztuta 10:30etik 11:30era epaimahaia osatuko duten kideek dastatuko dituzte sagar tartak. Aurten Elena Arzak, Armintz Gorrotxategi eta beste gonbidatu batek osatuko dute epaimahaia. Ebazpena eman eta sari banaketa 12:00etan izango da. Lehenengo saria eskuratzen duenak 240 euroko erosketa txeketa eskuratuko du, eta bigarrenak berriz, 180 eurokoa. Txeketa hauek Tolosako hiru gozotegi artisaunetan erabili beharko dira, Eceizan, Ibañez-Gozonan eta Rafa Gorrotxategin.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

- TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€
- HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€
- ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Tolosako Plaza Zaharrean jende ugari parte hartu zuen elkarretaratzean, larunbatean. A. IMAZ

Euskararen defentsan Bilboko kaleak betetzea eskatu dute

Galtzaundik deituta elkarretaratzea egin dute Tolosan eskualdeko hainbat herritarrek; hiru eskari luzatu dituzte

Asier Imaz Tolosa

Eskualdeko herritar eta udal ordezkari ugari elkartu ziren larunbatean Tolosako Plaza Zaharrean, Galtzaundik deituta. Elkarretaratzea egin zuten bertan, *Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean.

Herritar guztiei azaroaren 4an Bilbora joateko eskatu zieten, 17:00etan hasiko den manifestazioan parte hartzeko.

Elkarretaratzearen amaieran Manex Urruzola Galtzaundi Euskara Taldeko lehendakariak hartu zuen hitza. Bertaratuei eskerrik eman ondoren, egungo egoera kezka bizi dutela esan zuen Urruzolak: «Euskararen biziberritzea helburu duten neurrien kontra sententziak bata bestearren atzetik jasotzen ari gara, eta

argi dago ez direla kasu konkrituak: euskararen kontrako eraso eta estrategia judiziala da aurrean duguna; olatu erreazionario, atzerakoi eta euskarafobia».

Euskarak atzera ez, aurrera egin behar duela esan zuen Urruzolak. Horregatik, hiru eskari luzatu zituzten Galtzaunditik.

HIRU ESKARI

Hasteko, Tolosaldeko 28 herrietako 222 hautetsiei ondorengo eskatu zieten: «Jarraitu dezatela euskararen aldeko pausoak emanez udaletan; epai hauen aurrean herritarren hizkuntza eskubideak defenda ditzatela».

Eusko Jaurlaritzari eta legeraudia garatzeko eskumena duten gainerako erakundeei, ondorengo eskatu zieten: «Azken epaiari helegitea jartzeko, eta

gainera, bakoitzak bere eskumenetik, euskararen indarberritze-prozesuari lege-babes sendoa bermatzeko».

Azkenik, euskararen eta herritar guztien hizkuntza-eskubideen alde dauden eragile eta norbanakoei zuzendu zitzaizkien: «Azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzea oso garrantzitsua da. Bete ditzagun Bilboko kaleak eta zabaldu ezazue hitzordua zuen inguruan. Izan dadila azaroaren 4koa lehen pausoa, herritarrak euskararen defentsan indar gehiagoz antolatzeko. Larria baita gertatzen ari dena. Euskararen aurkako erasoak gelditzeko, gure hizkuntzaren normalizazioan pausoak emateko, hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko eta guztiok euskararen erabilera indartzeko garaia da».



PERRETXXIKOEN JAIA

Tolosako Casino Elkartaren Mikologikak egun handia bizi-tu zuen larunbatean. Festa giroan Triangulua herritarrez bete zen. Bertan, besteak beste, pintxo dastaketa, haurrentzat eskulanak, Radio Rebelde taldearen kontzertua eta lehiaketa izan ziren. Aurtengo Mikologika igandean amaitu zen, Aralarreara egindako irteerarekin. A. IMAZ



LEHEN GARAGARDO AZOKA

Pako belea konpartsak antolatuta garagardo azoka ospatu zuten Ikaztegiaren larunbatean. Azokak ateak 18:00etan zabaldu bazituen ere, herritarrak 20:00ak inguruan gerturatu ziren pilotalekura, ukondoaren usainean. Nahikoa jan eta edan ondoren, bingoan aritu ziren afaldarrak. Aurtengoa izan da Ikaztegiaren Garagardo Azokaren lehen edizioa. ATARIA



zozketak

Atarikideentzat
3 kaxa ditugu



ERRIGORAko
3 kaxa




Atarikideentzat
errege opil bat dugu



Goxua azokan
jasotzeko
Gozona etxeko
errege opil bat

Urriak 28
Larunbata
Tolosan

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu



genErrorAntz
dantza ikuskizuna

Urriak 29
larunbata
19:30ean
Villabonako
Gurean

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu



Bertso Saioa

Azaroak 1
Asteazkena
18:00etan
Villabonako
Gurean

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**



Jexux Mari Irazuk irabazi du III. Pello Errota sariketa

Jon Miranda Asteasu

Asteasuko Iturri-Ondo jatetxean ospatu zen ostiralean III. Pello Errota bertso sariketako finala. Berrobin eta Ikaztegieta kanporaketak jokatu ondoren, finale-rako sailkatu ziren lau bertsolariak aritu ziren kantuan: Eñaut Martikorena, Iñaki Gurrutxaga, Jexux Mari Irazu eta Unai Mendizabal. Irazuk irabazi zuen sariketa eta Beñat Zeberio Harituzeko kide eta bertsolari asteasuarak jantzi zion txapela.

Ofiziotan zortziko handian eta txikian aritu ziren bertsolariak aurrea, puntua emanda hiruna bertso bota zituzten ondoren, eta sei puntuko motzean jarraitu zuten. Bakarka gaia emanda hiruna bertso botaz amaitu zuten lehenengo fasea. Epaimahaiko kideek horrela erabakita, Eñaut Martikorena eta Jexux Mari Irazu sailkatu ziren buruz burukora, ofiziotan aritu ondoren librean eginda amaitu zuten saio puntuagarria. Txapela Irazuri ematea erabaki zuten epaimahaiko kideek eta bertso onenaren Mikaela Elizegi saria, berriz, Martikorenari eman zioten.

Bestalde, Udazkeneko Zapi Jantzeta irabazi zuen larunbatean, Jexux Mari Irazuk.



ERRALDOIEK HERRIA GIROTU DUTE

Faltzes, Funes, Ordizia, Lazkao, Bera, Santakara, Lasarte, Uharte eta Amasa-Villabonako erraldoien konpartsek hartu zuten parte, larunbatean Villabonan estreinakoz egin zuten Erraldoien Topaketan. Eurekin batera, Lasarteko txarangak eta Giro Arte, Jeronimo eta Tolosako dultzaineroek hartu zuten parte. Goiz osoan zehar kalez kale aritu ziren, eta herriko plazan eman zioten amaiera kalejirari, konpartsa guztiak banan-bana sartuz, eta ondoren, guztiak batera dantzatzuz. Herritar asko gerturatu ziren ikuskizunaz gozatzera, eta bereziki txikienek gozatu ederra hartu zuten. I. TERRADILLOS



KULTUR ANIZTASUNA

Mundu bat Asteasun dinamikaren barruan, Kulturarteko eguna ospatu zuten herenegun Asteasun. Bertan bizi diren hamalau nazionalitateko herritarrek euren herrialdeko edari eta jaki tradizionalak eraman zituzten, eta Asteasura atzeritik etorri diren herritarrei ongietorria eman zieten. Herriko bertsolariak koplaka aritu ziren, eta euskal dantzak eta Ekuador eta Afrika mendebaldekoak ere izan ziren. L. CARRASCO



EMAKUME ARTISAUAK

Irura Moretuz talde feministak, iazko arrakastaren ostean, bigarren goz antolatu du emakume artisauen azoka. Herriko zein inguruko emakume artisauen lanei ikusgarritasuna eman eta aitortza egiteko helburuarekin, hainbat postuk hartu zuten herenegun Irurako plaza. Zeramika, bitxiak, jantziak, pinturak, jostailuak, egur lanak eta kristalarekin egindako lanak izan ziren, besteak beste. L. CARRASCO

Palestinaren aldeko manifestazioa egingo dute ostiralean

Asier Imaz Tolosa

Sarraskiarekin amaitu. Palestina askatu! lelopean eskualdeko hainbat herritar elkartu ziren larunbatean Tolosan. Hurrengo ostiralerako manifestazioa deitu dute, 18:00etan Triangelua plaza abiatuta. Manifestazioaren deitzaileek hiru aldarri zabaldu nahi dituzte mobilizazio horretan. Batetik, estatu palestinarraren aitortpena eskatzen dute. Bestetik, okupazioaren amaiera. Eta, azkenik, erasoekin amaitzea exijitu dute. Herritarrei parte hartzeko deia egin diete.

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

6. jardunaldia	
Lauburu Ibarra	5
Ribafrecha Villa	5
Mateo Muñoz Ribera de Navarra	5
Laskorain	3

Sailkapena

1. Tauste	16p
2. Otxartabe	13p
5. Lauburu Ibarra	10p
16. Laskorain	1p

Hurrengo jardunaldia

Tauste (1) - Lauburu Ibarra (5)
Laskorain (16) - Villa de Quel (14)

HIRUGARREN MAILA

5. jardunaldia	
Almi Elorrietako - Tolosala	0-6

Hurrengo jardunaldia

Tolosala (7) - Gernika (4)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

6. jardunaldia	
Tolosa CF Eskubaloia	33
Beti-Onak	26

Sailkapena

1. Amenabar Zarautz	12p
2. Romo Broker Kirol	12p
3. Tolosa CF Eskubaloia	8p
4. Ilcapo Hondarribia Bidasoa	8p

Hurrengo jardunaldia

Hondar. Bid. (4) - Tolosa CF Esk. (3)

1. LURRALDEKO MAILA

3. jardunaldia	
Urola E.K. Cons. Antio	21
Tolosa CF Eskubaloia	29

Sailkapena

1. Zuhegan Orio Eragin	6p
2. Irauli Bostero	4p
3. Tolosa CF Eskubaloia	4p
4. Urbil-Usubil	4p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Esk. (3) - Ereintza (6)

Futbola

3. RFEF MAILA

7. jardunaldia	
Tolosa CF - Burgos	2-3

Sailkapena

1. Eibar B	21p
2. Añorga	16p
3. Burgos	14p
7. Tolosa CF	12p

Hurrengo jardunaldia

Osasuna C (11) - Tolosa CF (7)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

GIZONEZKOAK

7. jardunaldia	
Tolosa CF - Deusto	2-0

Sailkapena

1. Eibar B	18p
2. Aretxabaleta	16p
3. Bergara	16p
7. Tolosa CF	12p

Hurrengo jardunaldia

Eibar B (1) - Tolosa CF (7)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAKUMEZKOAK

5. jardunaldia	
Tolosa CF B - Urola	1-2

Hurrengo jardunaldia

Beti Gazte (10) - Tolosa CF B (16)

GORENGO MAILA GIZONAK

6. jardunaldia	
Billabona - Anaitasuna	2-0
Ilintxa - Danena	2-1

GORENGO MAILA EMAKUMEAK

5. jardunaldia	
Zestoa	2
Aiztondo Neskide K.	0

LEHEN MAILA ERREGIONALA

5. jardunaldia	
Ostadar - Tolosa CF B	3-2
Texas - Intxurre	0-1

Saskibaloia

EBA LIGA

4. jardunaldia	
Raisan Pas Pielagos	91
Redline Mekanika TAKE	88

Sailkapena

1. Baskonia	4-0
2. Fundacion Bilbao Basket	4-0
3. LBC Cocinas.com	3-1
13. Redline Mekanika TAKE	0-4

Hurrengo jardunaldia

Redline Mekanika TAKE (13)
LBC Cocinas.com (3)

EMAKUMEZKOEN 1. MAILA

2. jardunaldia	
Añorga KKE Saski	26
Eguzkitza Sagardotegia TAKE	48

Sailkapena

1. CD Internacional	2-0
2. Goierri	2-0
3. Eguzkitza Sagard. TAKE	2-0
4. Ostadar	2-0

Hurrengo jardunaldia

Ostadar (4)
Eguzkitza Sagardotegia TAKE (3)

Finalerdietarako sailkatu da Altuna III.a

Peña II.aren eta Artolaren artean beste postu bat izango da jokoan; Jakak Ezkurdiari irabazten badio aurrera egingo du

Erredakzioa

Kontu asko argitu dira Lau eta Erdiko Txapelketaren fina-laurdenetako ligaxkaren bigarren jardunaldia jokatu eta gero. Altuna III.a eta Peio Etxeberrria finalerdietan daude, eta beste bi postuak bi partidetan jokatuko dira, irabazleak pasako direlako. Horiari bat eskualdeko pilotarien artekoa izango da, Artolak eta Peña II.ak jokatuko duten neurketa, hain justu. Igandean izango da partida hori, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Beste partida erabakigarria Erik Jakak eta Joseba Ezkurdiak jokatuko dute, larunbatean, Bermeon.

Altuna III.ak Peña II.aren aurkako partidaren lortu zuen bigarren puntua eta aurrera egiteko txartela. Atzetik hasi zen amezketarra, baina tolosarrari hanke-

tara jokatzen hasi zen, aurkariaren aireko jokoa geldiarazteko eta partidari buelta eman ondoren, 22-11 irabazi zion. Altuna III.ak, ordea, lesioa izan zuen ezker sorbaldarekin pareta jo ondoren, eta ez du hirugarren jardunaldiko partida, Elordiren aurkakoa, jokatuko.

Artolak Elordiren aurkako partida irabazita lortu du bizirik jarraitzea txapelketan. Markagailuari buelta eman zion alegiarak partidaren azken txanpan, 0-9koa eginez, eta zuzenean 22. tantoraino iritsiz. Finalerdietan, beraz, eskualdeko beste pilotari bat izango da: igandean Beotibarren irabazten duenak lortuko du txartel preziatua. Irabazleak finalerdietan Peio Etxeberrria izango du zain.

Jakak ere aukera izango du finalerdietan sartzeko. Salaberria

eskuko minez zegoen bigarren jardunaldia jokatzeke, eta bertan behera utzi zuen bere parte hartzea partida horretarako. Hori horrela, Jakak bere lehenengo puntua lortu du, eta orain Ezkurdiaren aurka irabaziz gero finalerdietan izango da. Jakaren eta Ezkurdiaren arteko neurketaren irabazleak Altuna III.aren aurka jokatu beharko du finalerdietan.

Bestalde, dagoeneko salgai daude Lau eta Erdiko Txapelketaren finalera joateko sarrerak. Bilboko Bizkaia frontoian jokatuko da partida hori, azaroaren 19an. Kantxako sarrerak 120 euro balio du, palkokoak 130 euro, kantxako azken blokekoak 100 euro, alboko 2. solairukoak 65 euro, alboko 3. solairukoak 40 euro, kantxako errebotekoak 50 euro, 2. errebotekoak 50 euro eta 3. errebotekoak 40 euro.

Iñarra eta Larrañaga Eltxo Trailen irabazle



7. Eltxo Trail proba luzeko sari banaketa. ELTXO TRAIL

Erredakzioa Orendain

Guztira 87 parte hartzailek amaitu zuten larunbatean jokatu zen 7. Eltxo Traileko proba luzea, 21 kilometrokoa. Gizonezkoetan Ander Iñarra lezoarra izan zen azkarrena, 1.25.33 eginez, eta minutu batera iritsi zen Iñaki Olano

altzotarra (1.26.34); hirugarren Axier Artola amezketarra izan zen (1.31.13). Emakumezkoetan Irati Larrañaga usurbildarra izan zen lehenengoa, 1.48.25 eginez, bigarrenkoa Leire Elola tolosarra (1.51.04) eta hirugarren Irene Iturria bidaniarra (1.51.57).

Proba motzean, 7 kilometro-

koa, 113 korrikalari iritsi ziren helmugara. Gizonezkoetan Unai Mintegi (29.54), Kristian Valor (32.41) eta Iñigo Ormazabal (33.35) izan ziren hiru azkarrenak, eta emakumezkoetan Lola Oiarzabal (36.53), Nagore Astorga (39.09) eta Laia Aitchou billabonatarra (43.07).

Ruiz de Arkaute eta Modenes, garaile

Garaje Tolosa Saria III. Pablo Arsuagaren Oroimenezko ziklo-kros lehia egin da Tolosako Iurreamendi inguruetan

Leyre Carrasco Tolosa

Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, Garaje Tolosa Saria III. Pablo Arsuagaren Oroimenezkoa izan zen jokoan igande goizean Tolosako Iurreamendi inguruan. Guztira lau proba jokatu ziren, eta gizonetzko elite eta 23 urte azpiko mailan Diego Ruiz de Arkaute, Gorka Corres eta Aitor Hernandez izan ziren azkarrenak. Emakumezko elite eta 23 urte azpikoetan, berriz, Maria Modenes, Lukene Trujillano eta Naia Arregi.

Gizonezkoen Master 30 mailan David Hidalgo izan zen azkarrena, Master 40 mailan David



Ziklo-krosa protagonista izan zen Tolosan, igande goizean. LEYRE CARRASCO

Busto, eta Master 50/60 mailan Unai Yus. Junior mailan, gizonetzkoetan azkarrena Oskitx Egiguren izan zen eta emakumez-

koetan Irati Aranguren. Kadete mailan, gizonetzkoetan Aner Irizar eta emakumezkoetan Mirari Gotxi.



ESKIBEL ETA ORONOZ

Amasako 30. Mendi Duatloia jokatu zuten larunbatean, eta bakarka 51 parte hartzaile izan zituen probak, eta bikoteka 13. Gizonetzkoetan Iker Eskibel, Josu Urrestarazu eta Adria Noguera izan ziren azkarrenak eta emakumezkoetan Enara Oronoz, Ainara Pequeño eta Nekane Pradera. Lehen herritarra Eneko Gurrutxaga izan zen. Bikoteka, berriz, Iparragirre-Herrera, Roteta-Arizeta eta Balerdi-Agirre izan ziren lehenengo hirurak. I. TERRADILLOS

Urra eta Izeta IV.a izan dira indartsuenak

Erredakzioa Alegia

Alegiako harri jasotzaileen XVI. Txintxarri Sariaren irabazleak Urra eta Izeta IV.a izan ziren. Lau harriarekin aritu ziren lehian eta bikote irabazleak guztira 23.875 kilo altxatu zituen. Bigarren bikotea Azpiazu-Lartain izan zen, 22.762,5 kilorekin, eta hirugarrena Telleria IV.a eta Gari Garmendia, 22.387,5 kilo altxatuta. Alegiako plaza jendez bete zen eta hiru bikoteek ikuskizun bikaina eskaini zuten.



XVI. Txintxarri Sariaren sari banaketaren unea. ASIER IMAZ



48 PARTE HARTZAILE

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak antolatuta, 22. Hernialde-rollera Igoera egin zuten larunbatean, 48 parte hartzaileekin. Skating eran Peio Añarbe gasteiztarra eta Irati Cuadrado iruñarra izan ziren azkarrenak. Lehen gizonetzko beterranoa, berriz, Harkaitz Labeaga tolosarra. Klasiko eran Unai Sanz uhartearra eta June Aranburu tolosarra izan ziren irabazleak. Gizonetzko beterrano azkarrena Fernando Perez errenteriarra izan zen. Gaztetxoan mailan, Andee Elizburu elgoibartarra eta Libe Curras tolosarra izan ziren lehenengoak iristen helmugara. I. TERRADILLOS



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 ZALDIA: HASTAPEN TAILERRA

Bi lagunentzako hastapen tailerra
Larunbat arratsaldean

Zelai Alai Hipika
Gaztariatza z/g · Iurreta
691746611
hipicazelaialai.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 TOPIC

Tolosaldeko Nazioarteko
Txotxongilo zentroa

Bi lagunentzako bina sarrera

www.topictolosa.com
Euskal Herria plaza · Tolosa
943 650414

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52





ASTEARTEA, 2023KO URRIAK 24
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 24

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Oihane Amantegi
Uriarteren Cayo Hueso liburua
aztertuko dute, Irakurketa feminista
saioan, Alaine Agirre Garmendiak
dinamizatuta. Balioanitzeko gelan,
18:30ean.

Asteasu. A25 antolatzeko bilera
irekia, kultur etxean, 18:00etan.

Berastegi. Oinez Berastegi, plazatik
10:30ean abiatuta.

Ondoren, hamaiketako.

Tolosa. Galtzaundiren tertulia
literarioan Arrate Egañaren
Itzalen distira aztertuko dute,
Yurre Ugartek dinamizatuta.
Kultur etxean, 19:00etan.

Tolosa. Alde Zaharreko bizilagunen
bilera. Apaiz etxean, 20:00etan.

Kontzertuak

Tolosa. Stone from the sky eta
Could seed taldeen kontzertuak,
Bonberenean, 20:00etan hasita.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearen
eskutik eguraldi iragarpena.

10:00. Patxadaz. Elkarrizketen
tartea.

12:30. Pasahitza. Albisteak.

18:00. Haimarren saioa. Haimar
Malkorrak aurkeztutako saioa.

28 KANALA

12:30. Gazako gatazka.

13:30. Tolosaldea Gertutik.

17:00. Eugeniren txokoa.

21:30. Tolosaldea Gertutik.

22:00. Kontu kontari.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte
Posada. Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres
Morant. Zabalarretalorategiak, 1.
943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro lasaia. Goizean
ostarte zabalak izango
ditugu zeruan, baina
eguerdi aldera erdi eta goi-mailako
hodeiek zerua nahiko estalirik
utzikiko dute. Arratsaldean
zaparrada isolaturen bat bota
badezake ere, bereziki
arratsaldeko lehen orduan,
orokorrean ateri egongo da,
gauean ostarteak nagusituko
direlarik. Hego-mendebaldeko
haizeak joko du, arratsaldean
zakar. Tenperatura jaitsi egingo da,
16-18 graduan joz goia.



Bihar. Antzeko giroa. Goizean
ostarte politak izango dira
nagusi eta giroa ederra izan-
go da. Arratsaldean hodeiak ugartuz
joango dira, zerua estali xamar utzikiko
dutelarik. Gauean zaparrada txikiren
bat edo beste izango da. Hego-men-
debaldeko haizeak joko du, tarteka
zakar. Tenperaturak gora egingo du,
18-20 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzien egunkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.



BADA SALTSA BELAUNTZAN

Dantzan igaro zuten igandea Belauntzan. Izan ere, udalak dantza festa antolatu zuen, Donostia-ko Swing dantza eskolarekin batera. Goizetik gauera bitarte, hamar dantza tailer izan zituzten aukeran parte hartzaileek. Pilotalekuan, plazan eta udaletxe ondoko parkean dagoen plazan egin zituzten tailerrak, eta horietara, bertakoak ez ezik kanpotik joandakoak ere animatu ziren. Salsa, bachata, bogaloo-cha eta zumba bezalako modalitateetan trebatu ziren. L.CARRASCO

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -

Enpresa berri bat sortzeko asmoa al duzu?



Tolosaldea
ekintzailetza
garatzen



16 ekintzailek
1.000 eurotik gorako
diru-laguntza jasotzeko
aukera izango dute
Tolosaldean

Informazio
guztia hemen

